Urretxuko udala

**UDALAREN OSOKO BILKURA**

**2021eko AZAROAREN 25an EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIA**

**Elkartutakoak**

**Alkatea:**
Jon Luqui Albisua, jauna (E.A.J./P.N.V.)

**Zinegotziak:**
Itziar Agirre Berriotxoa, andrea (E.A.J/ P.N.V)
Igor Zubillaga Aguado, jauna (E.A.J/ P.N.V)
Jon Albisua Garmendia, jauna (E.A.J/ P.N.V)
Maialen Fidalgo Mendizabal, andrea (E.A.J/ P.N.V)
Ion Pol Agirre Berriotxoa, jauna (E.A.J./ P.N.V.)
Victor M. Pérez Eguren, jauna (E.A.J./ P.N.V.)
Nekane Oruesagasti Aramendi, andrea (E H Bildu)
Igone Nestar Del Río, andrea (EH Bildu)
Mikel Elgarresta Mintegi, jauna (E H Bildu.)
Aitor Diaz de Espada Gorrochategui, jauna (EH Bildu)
Natividad Nieves Medina, andrea (P.S.E.-E.E)
Jokin Garcia Benítez, jauna ((P.S.E.-E.E)

**Idazkaria**
María Jose Begiristain Zabalo andrea

**Kontuhartzailea**
Jon Iturrioz Nazabal jauna

Urretxun bi mila eta hogeita bateko azaroaren hogeita bostean.

Arratsaldeko zazpirak eta berrogeita hamar direnean, aldez aurretik deitutako ohiko batzarraldia egiteko, Udalbatzarra bildu da udaletxeko batzar areto nagusian, goian agertzen diren udal-bazkideak elkartu dira.

En Urretxu a veinticinco de noviembre de dos mil veintiuno.

Siendo las diecinueve horas y cincuenta minutos se reúne en la Sala Capitular del Ayuntamiento el Pleno de la Corporación al objeto de celebrar sesión ordinaria para la que había sido

Urretxuko udala

Lehendakariak ekitaldiari hasiera eman dio, eta bere aginduz, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiei eztabaidatzeari ekin diote

convocada y a la que asistieron los Señores Corporativos que arriba se indican.

Abierto el acto por la Presidencia y de su orden se pasó a tratar los asuntos relacionados en el Orden del Día

| | |
|---|---|
| 1.- Aurrreko batzarraldietako aktak. | 1.- Actas sesiones anteriores. |
| 2.- Alkatetzaren ebazpenak: berri eman. | 2.- Resoluciones alcaldía: dar cuenta. |
| 3.- Egonkortasuna, jasangarritasuna, eta gastuaren erregelaren betetzeari buruzko kontuhartzailetzaren txostena: 2021/17KALD zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: kreditu transferentziak. | 3.- Informe de Intervención sobre cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto: Expediente modificación créditos nº 2021/17 KALD transferencia de créditos. |
| 4.- 2022 Aurrekontua:<br>a) 2022rako aurrekontu orokorra<br>b) 2022 urteko plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda. | 4.- Presupuesto 2022:<br>a) Presupuesto General 2022<br>b) Plantilla orgánica y relación puestos trabajo año 2022. |
| 5.- Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren Adierazpen Instituzionala. | 5.- Declaración institucional Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres. |
| 6.- 2021eko Euskararen Nazioarteko egunerako adierazpena. | 6.- Declaración institucional Día internacional del Euskara 2021. |
| 7.- EH Bilduk eta EAJk aurkeztutako mozioak. | 7. Mociones presentadas por EH Bildu y por EAJ-PNV. |
| 8.- Erregu eta galderak. | 8.- Ruegos y preguntas. |

**1.- Aurrreko batzarraldietako aktak.**

**2021eko urriaren 14an, urriaren 28an eta azaroaren 15an** egindako batzarraldien aktak irakurri ondoren, aho batez onartu dira.

**1.- Actas sesiones anteriores.**

Dada lectura de las actas de las sesiones celebradas el **14 de octubre, 28 de octubre y 15**

**de noviembre de 2021**, son aprobadas por unanimidad.

**2.- Alkatetzaren ebazpenak: berri eman.**

**2021eko urrian** emandako dekretuen berri eman da, hain zuzen ere ondorengo hauek:

ANTOLAKUNTZA

2021-10-01 Fakturen zerrenda onartzea. 223.983,09€.

2021-10-06 J.J.S.E. Udal-brigadako arduradun izendatzea titularraren oporretan.

2021-10-07 F.J.P.P. T.M.I.G.Zren hobaria onartzea.

2021-10-07 Artxibozain lanpostua aldi baterako betetzeko pertsona bat kontratatzeko deialdia onartzea.

2021-10-08 E.A.B. T.M.I.G.Zren hobaria onartzea.

2021-10-08 Fakturen zerrenda onartzea. 258.859,18€.

2021-10-15 Artukoluke S.L. E.J.G.Zn hobaria aplikatzea kontratu mugagabedun langileen bataz bestekoaren igoeragatik.

**2.- Resoluciones alcaldía: dar cuenta.**

Se da cuenta de la relación de Decretos dictados durante el mes de **octubre de 2021** que se relaciona a continuación:

ORGANIZACION

01-10-2021 Aprobación relación de facturas. 223.983,09€.

06-10-2021 J.J.S.E. Nombrarle responsable de la brigada municipal durante las vacaciones del titular.

07-10-2021 F.J.P.P. Estimación bonificación en la cuota del I.V.T.M.

07-10-2021 Aprobar convocatoria para la contratación de una persona para cubrir temporalmente el puesto de archivero/a.

08-10-2021 E.A.B. Estimación bonificación del I.V.T.M.

08-10-2021 Aprobación relación de facturas. 258.859,18€.

15-10-2021 Artukoluke S.L. Conceder bonificación en el recibo de I.A.E por incremento del promedio plantilla con contrato indefinido.

| | |
|---|---|
| 2021-10-15 Fakturen zerrenda onartzea. 116.226,65€. | 15-10-2021 Aprobación relación de facturas. 116.226,65€. |
| 2021-10-2021 D.F.V. Zorraren zatikapen eskaera onartzea. | 18-10-2021 D.F.V. Estimación solicitud de fraccionamiento de duda. |
| 2021-10-19 F.J.M.G. T.M.I.G.Zren salbuespena ematea. | 19-10-2021 F.J.M.G. Concesión exención del I.V.T.M. |
| 2021-10-19 Kontabilitateko administrari lanpostua lehiaketa-oposizio sistemaren bidez jabetzan betetzeko oinarriak onartzea. Aukeraketa frogetarako deia egitea. | 19-10-2021 Aprobar las bases para la provisión en propiedad por el sistema concurso-oposición de la plaza de Administrativo/a de contabilidad. Convocar pruebas selectivas. |
| 2021-10-20 I.A.M. Lau eguneko soldata deskontatzea. | 20-10-2021 I.A.M. Descuento de cuatro días de salario. |
| 2021-10-22 Fakturen zerrenda onartzea. 269.7701,53€. | 22-10-2021 Aprobación relación de facturas. 269.770,53€. |
| 2021-10-22 E.M.O. Administrari-diruzaina lanpostuari uko egiteko eskaera onartzea. | 22-10-2021 E.M.O. Aceptar la renuncia al puesto de administrativa-tesorera. |
| 2021-10-22 J.M.G.A. Ondare erantzukizuneko espedienteari hasiera ematea. | 22-10-2021 J.M.G.A. Inicio de expediente de responsabilidad patrimonial. |
| 2021-10-22 I.Z.A. Alkatearen funtzioak eskuordetzea. | 22-10-2021 I.Z.A. Delegación funciones de Alcaldía. |
| 2021-10-22 M.T.A. Lanaldia luzatzea. | 22-10-2021 M.T.A. Ampliación jornada de trabajo. |
| 2021-10-25 M.A.A.B. Ondarezko erantzukizun erreklamazioa ez onartzea. | 25-10-2021 M.A.A.B. Desestimación reclamación de responsabilidad patrimonial. |

2021-10-28 F.L.G. Ondare erantzukizuneko espedienteari hasiera ematea.

2021-10-28 F.J.A.M. Zorraren zatikapen eskaera onartzea.

2021-10-29 Fakturen zerrenda onartzea. 81.941,76€.

2021-10-29 Sociedad Estatal Correos y Telégrafos S.A. Kontratua urtebetez luzatzeko baimena.

2021-10-29 Grupo S21 SEC Gestion S.A. Kontratua urtebetez luzatzeko baimena.

2021-10-29 Gureak Marketing S.L.U. Kontratua urtebetez luzatzeko baimena.

2021-10-30 J.V.E. T.M.I.G.Zren salbuespena ematea.

28-10-2021 F.L.G. Inicio de expediente de responsabilidad patrimonial.

28-10-2021 F.J.A.M. Estimación solicitud de fraccionamiento de deuda.

29-10-2021 Aprobación relación de facturas. 81.941,76€.

29-10-2021 Sociedad Estatal Correos y Telégrafos S.A. Autorización primera prórroga del contrato por un año.

29-10-2021 Grupo S21 SEC Gestion S.A. Autorización primera prórroga del contrato por un año.

29-10-2021 Gureak Marketing S.L.U. Autorización primera prórroga del contrato por un año.

30-10-2021 J.V.E. Concesión exención del I.V.T.M.

## LURRALDEA

2021-10-01 Obra baimena. Labeaga 14.

2021-10-04 N.A.M. Ipeñarrieta 5eko lokala egokitzeko egoera erregularizatzeko errekerimendua.

## TERRITORIO

01-10-2021 Licencia de obra. Labeaga 14.

04-10-2021 N.A.M. Requerimiento para regularización de situación de adecuación de local sito en Ipeñarrieta 5.

Urretxuko udala

2021-10-04 M.J.E.O. Lehen okupazioko baimena ematea.

2021-10-04 Construcciones M.B. Antio S.L.L. Hirugarren obra ziurtagiria eta fatura onartzea. 58.302,93€.

2021-10-04 Construcciones M.B. Antio S.L.L. Laugarren obra ziurtagiria eta faktura onartzea. 100.134,83€.

2021-10-04 Palneamenduko Araun Subsidiarioen Testu Bateraginaren berrikuspena et hiri Antolamendu Plan Orokorra bihurtzeko kontratuari dagozkion fakturak onartzea:
Manu Arruabarrena.: 10.006,70€.
Santiago Peñalba: 10.006,70€.
Mikel Iriondo: 6.667,10€.

2021-10-04 Ur lotunea egiteko baimena. Basagasti 2-2A.

2021-10-05 Asociación Española Contra el Cáncer. Bide publikoa okuapatzeko baimena.

2021-10-05 Oleta Iturgintza S.L. Bide publikoa okupatzeko baimena.

2021-10-06 J.M.A. Iñausketa adarrak erretzeko baimena ematea.

2021-10-06 Gainzurin egin beharreko aktuazioei buruzko memoria teknikoa eta aurrekontua onartzea.

04-10-2021 M.J.E.O. Concesión licencia de primera ocupación.

04-10-2021 Construcciones M.B. Antio S.L.L. Aprobación tercera certificación de obra y factura. 58.302,93€.

04-10-2021 Construcciones M.B. Antio S.L.L. Aprobación cuarta certificación de obra y factura. 100.134,83€.

04-10-2021 Aprobación facturas correspondientes a la redacción de la revisión del Texto Refundido de las NN.SS. de planeamiento y su conversión a P.G.O.U.

Manu Arruabarrena.: 10.006,70€.
Santiago Peñalba: 10.006,70€.
Mikel Iriondo: 6.667,10€.

04-10-2021 Autorización acometida de agua. Basagasti 2-2A.

05-10-2021 Asociación Española Contra el Cáncer. Autorización ocupación de vía pública.

05-10-2021 Oleta Iturgintza S.L. Autorización ocupación de vía pública.

06-10-2021 J.M.A. Autorización quema de restos de poda.

06-10-2021 Aprobar memoria técnica de las intervenciones a ejecutar en Gainzuri con su presupuesto de ejecución.

| | |
|---|---|
| 2021-10-07 M.E.S. Lilibaso 24ko eraikineko sarbideko fatxada margotzeko egindako lanak legeztatzea. | 07-10-2021 M.E.S. Legalización de las obras ejecutadas de pintado de fachada de acceso al edificio sito en Lilibaso 24. |
| 2021-10-08 Barrenkale 9ko Jabekideak. Bide publikoa okupatzeko baimena. | 08-10-2021 Copropietarios Barrenkale 9. Autorización ocupación de vía pública. |
| 2021-10-08 Construcciones M.B. Antio S.L. Jose Mari Lasa plaza urbanizatzeko obrak egiteko kontratua aldatzeko baimena. Prezioaren aldaketa 85.663,7€. | 08-10-2021 Construcciones M.B. Antio S.L. Autorización modificación del contrato para la ejecución de las obras de urbanización de la plaza Jose Mari Lasa. Variación precio 85.663,37€. |
| 2021-10-08 Construcciones Arki S.Coop. Bidegurutzean eta Nekolalde kalean esku hartzeko obrak egiteko kontratua aldatzeko baimena. Prezioaren aldaketa 6.399,61€. | 08-10-2021 Construcciones Arki S.Coop. Autorización modificación de contrato para la ejecución de las obras de intervención en cruce y calle Nekolalde. Variación de precio 6.399,61€. |
| 2021-10-08 E.S.B. Baratza ureztatzeko ur lotunea egiteko baimena. | 08-10-2021 E.S.B. Autorización acometida de agua para riego de huerta. |
| 2021-10-08 ISS Facility Services S.A. J.M. Iparragirre gimnasioa garbitzeko esleipena. 8.021,53€. | 08-10-2021 ISS Facility Services S.A. Adjudicación limpieza del gimnasio J.M. Iparragirre. 8.021,53€. |
| 2021-10-08 Errotu taldea SLP eta Fiark Arquitectos SLP. Pasiotarren komentu zaharraren eraikinean aurreikusitako eraispenaren obraren zuzendaritza esleitzea. 4.840€. | 08-10-2021 Errotu taldea SLP y Fiark Arquitectos SLP. Adjudicación Dirección de obra del derribo previsto en el edificio del antiguo convento de Pasionistas. 4.840€. |

Urretxuko udala

2021-10-08 M.E.D.D.E.A. B-15 kolunbarioa hamar urterako erabiltzeko emakida ematea.

2021-10-13 J.D.J.S.M. Trafiko arau-hausteengatiko alegazioak onartzea.

2021-10-13 Mugamendi S.L. 04-020 lurzatiko pinudiaren hegaldia saltzea. 6.957,50€.

2021-10-13 Carpinteria Biona S.L. Santa Barabara aterpetxeko harmailak konpontzea esleitzea. 1.299,54€.

2021-10-13 Izarraitzpe Lorezaintza S.L. Haurreskolan jolasgunea egokitzea esleitzea. 2.914,89€.

2021-10-14 Dinam Ingenieria S.L. Ur lotunea egiteko baimena.

2021-10-14 Mugamendi S.L. Santa Barbarako 04-020 lursailean mozketa-hondarrak garbitzeko lanak esleitzea. 2.976,60€.

2021-10-14 Maykolux S.L. Gabonetako argiztapenerako fatxadetan eusteko takoak jartzea esleitzea. 951,06€.

2021-10-14 Argitronik S.L. Aldiri kiroldegira sartzeko sistema hornitu eta instalatzea esleitzea. 4.799,80€.

08-10-2021 M.E.D.D.E.A. Otorgar concesión de uso de columbario B-15 por diez años.

13-10-2021 J.D.J.S.M. Estimación alegaciones por infracciones de tráfico.

13-10-2021 Mugamendi S.L. Venta del vuelo del pinar de la parcela 04-020. 6.957,50€.

13-10-2021 Carpinteria Biona S.L. Adjudicación reparación de graderío del albergue Santa Bárbara. 1.299,54€.

13-10-2021 Izarraitzpe Lorezaintza S.L. Adjudicación adecuación de zona de juegos en haurreskola. 2.914,89€.

14-10-2021 Dinam Ingenieria S.L. Autorización acometida de agua.

14-10-2021 Mugamendi S.L. Adjudicación realización de trabajos de limpieza de restos de talla en la parcela 04-020 de Santa Barbara. 2.976,60€.

14-10-2021 Maykolux S.L. Adjudicación colocación de tacos de sujeción en fachadas para el alumbrado navideño. 951,06€.

14-10-2021 Argitronik C.B. Adjudicación suministro e instalación del sistema

Urretxuko udala

de acceso al polideportivo Aldiri. 4.799,80€.

2021-10-14 Ingenieria Sendo S.L. Urretxuko landa-bideen Udal Ordenantza egitea esleitzea.

14-10-2021 Ingenieria Sendo S.L. Adjudicación elaboración de la Ordenanza Municipal de caminos rurales de Urretxu. 5.564,79€.

2021-10-14 Construcciones Sebastian Ramos S.L. Gurutze Gorriaren eraikinaren ondoko kanpoko zoladura konpontzeko lanak esleitzea. 5.885,84€.

14-10-2021 Construcciones Sebastian Ramos S.L. Adjudicación arreglo del pavimento exterior junto al edificio de Cruz Roja. 5.885,84€.

2021-10-14 IRI-BE Industria hornigaiak S.L. Hilerrirako mahai jasotzaile baten hornidura esleitzea. 824,01€.

14-10-2021 IRI-BE Industria hornigaiak S.L. Adjudicación suministro de una mesa elevadora para el cementerio. 824,01€.

2021-10-15 Ur lotunea egiteko baimena. Labeaga 41 behea-C.

15-10-2021 Autorización acometida de agua. Labeaga 41 bajo-C.

2021-10-18 G.O.M. Musika duen tabernaren jardueran aritzeko aurkeztutako jakinarazpena jasota uztea.

18-10-2021 G.O.M. Tomar razón de la comunicación presentada para actividad de bar de música.

2021-10-19 Lurkide Hondalanak S.L. 132 faktura onartzea, Santa Barbara auzorako sarbide Berria egiteko obrei dagokiena. 115.220,04€.

19-10-2021 Lurkide Hondalanak S.L. Aprobación facturas 132 de las obras de construcción del nuevo acceso al entorno rural de Santa Barbara. 115.220,04€.

2021-10-19 CTE Studio Project Manager S.L. Bide publikoa okupatzeko baimena.

19-10-2021 CTE Studio Project Manager S.L. Autorización ocupación de vía pública.

Urretxuko udala

2021-10-19 A.M.M.G. Bide publikoa okupatzeko baimena.

2021-10-19 Gisma Asesoramiento S.L.U. Lehioak aldatzeko egindako lanak legeztatzea.

2021-10-19 Obra baimena. Iparragirre 5-2º.

2021-10-19 Obra baimena. Iparragirre 42-1 ezk.

2021-10-19 Obra baimena. Labeaga 33l-6C.

2021-140-19 Egindako lanak legeztatzea. Ipeñarrieta 7 behea.

2021-10-19 Obra baimena. Labeaga 5.

2021-10-20 Obra baimena. Labeaga 45-5A.

2021-10-21 Obra baimena. Iparragirre 42.

2021-10-21 Obra baimena. Ipeñarrieta 22.

2021-10-22 J.V.D.A. Atrakzioak jartzeko eskaera ez onartzea.

2021-10-22 A.U.E. Egindako obrei dagokien espedientea bukatutzat ematea.

2021-10-25 “Diagnóstico para un plan de movilidad sostenible” proiektua garatzeko diru laguntza eskatzea.

19-10-2021 A.M.M.G. Autorización ocupación de vía pública.

19-10-2021 Gisma Asesoramiento S.L.U. Legalización obras ya ejecutadas para sustitución de ventanas.

19-10-2021 Licencia de obras. Iparragirre 5-2º.

19-10-2021 Licencia de obras. Iparragirre 42-1 izda.

19-10-2021 Licenica de obra. Labeaga 33l-6C.

19-10-2021 Legalización obras ya ejecutadas. Ipeñarrieta 7 bajo.

19-10-2021 Licencia de obras. Labeaga 5.

20-10-2021 Licencia de obras. Labeaga 45-5A.

21-10-2021 Licencia de obras. Iparragirre 42.

21-10-2021 Licenica de obras. Ipeñarrieta 22.

22-10-2021 J.V.D.A. Desestimar solicitud de instalación de atracciones.

22-10-2021 A.U.E. Dar por finalizado expediente de obras ejecutadas.

25-10-2021 Presentación de solicitud de ayuda para la realización del “Diagnóstico para un plan de movilidad sostenible”.

2021-10-25 I.L.S. obrei dagokien espedientea bukatutzat ematea eta abala itzultzea.

25-10-2021 I.L.S. Dar por finalizado el expediente de obras y proceder a la devolución de aval.

2021-10-26 J.M.A.M. Bide publikoa okupatzeko baimena.

26-10-2021 J.M.A.M. Autorización ocupación de vía pública.

2021-10-26 CTE Studio Project manager S.L. Bide publikoa okupatzeko baimena.

26-10-2021 CTE Studio Project Manager S.L. Autorización ocupación de vía pública.

2021-10-26 F.H.L.J. 10 urtetarako B-16 Kolunbarioa erabiltzeko emakida ematea.

26-10-2021 F.H.L.J. Concesión uso columbario B-16 por 10 años.

2021-10-27 CTE Studio project Manager S.L. Bide publikoa okupatzeko baimena.

27-10-2021 CTE Studio Project Manager S.L. Autorización ocupación de vía pública.

2021-10-27 Asfaltia S.L. Abala itzultzeko eskaera ez onartzea.

27-10-2021 Asfaltia S.L. Desestimar solicitud de devolución de aval.

2021-10-27 Lurkide Hondalanak S.L. Santa Barbara ingurua oinezkoentzat egokitzeko lanak esleitzea. 4.346,38€.

27-10-2021 Lurkide Hondalanak S.L. Adjudicación obras para la mejora de la peatonalización del entorno de Santa Barbara. 4.346,38€.

2021-10-27 Sumun Equipamientos S.L. Udaltzaingoarentzako jantzien hornidura esleitzea. 1.810,43€.

27-10-2021 Sumun Equipamientos S.L. Adjudicación suministro de vestimenta para la Policía Municipal. 1.810,43€.

2021-10-27 Girodservices S.L. Bideo zaintzako informazio panelen hornidura esleitzea. 1.298,35€.

27-10-2021 Girodservices S.L. Adjudicación suministro de paneles informativos de video-vigilancia. 1.298,35€.

2021-10-27 Oleta Berri S.L. Brigadaren biltegi-pabiloi Berria instalazio elektrikoa

27-10-2021 Oleta Berri S.L. Adjudicación suministro de material para adecuación de instalación eléctrica

egokitzeko materiales hornitzea esleitzea. 1.313,42€.

en nuevo pabellón almacén brigada. 1.313,42€.

HERRITARRAK

2021-10-01 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-01 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-01 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-04 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-04 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-04 R.E.A. Gizarte Larriladietako Laguntza ematea.

2021-10-04 R.F.P. Gizarte Larriladietako Laguntza ematea.

2021-10-04 L.A.L. Ezintasuna duten pertsonentzako aprakamendu txartela ematea.

2021-10-05 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

CIUDADANIA

01-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

01-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

01-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

04-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

04-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

04-10-2021 R.E.A. Concesión Ayuda de Emergencia Social.

04-10-2021 R.F.P. Concesión Ayuda de Emergencia Social.

04-10-2021 L.A.L. Concesión tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad.

05-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-05 C.O.L.M. Biztanleen Udal Erroldan ofiziozko baja emateko espedientea bideratzea.

05-10-2021 C.O.L.M. Tramitación expediente de baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-06 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

06-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-06 Z.G.M.M. Ezintasuna duten pertsonentzako aparkamendu txartela ematea.

06-10-2021 Z.G.M.M. Concesión tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad.

2021-10-06 C.S.O.O., N.A.R.C., J.L.C.G., J.S.O.E. eta S.N.G. Biztanleen Udal Erroldan ofiziozko baja emateko espedientea bideratzea.

06-10-2021 C.S.O.O., N.A.R.C., J.L.C.G., J.S.O.E. y S.N.G. Tramitación expediente de baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-07 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

07-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-08 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

08-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de habitantes.

2021-10-08 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

08-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-08 Biztanleen udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

08-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-08 B.O.L. Ezintasuna duten pertsonentzako aparkamendu txartela ematea.

08-10-2021 B.O.L. Concesión tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad.

2021-10-13 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

13-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-15 Biztanleen Udal Eroldan erroldatzeko eskaera.

15-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

Urretxuko udala

2021-10-15 L.H. Biztanleen Udal Erroldan ofiziozko baja emateko espedientea bideratzea.

2021-10-15 D.D.S.E.D. Biztanleen Udal Erroldan ofiziozko baja emateko espedientea bideratzea.

2021-10-16 Graficas Iparraguirre S.A. Mineralen asterako kartelak eta aldizkariak argitaratzea esleitzea. 1.511,29€.

2021-10-18 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-18 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-18 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-19 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-19 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-19 Herce Elektrizitatea S.L. Mineralen aretoko instalazio elekrtikoaren esleipena. 1.341,89€.

2021-10-19 Zientzia Bizirik S.L. Mineralogia-astean tailer zientifikoak eta haurrentzako ikuskizuna egiteko esleipena. 2.915,00€.

15-10-2021 L.H. Tramitación expediente de baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes.

15-10-2021 D.D.S.E.D. Tramitación expediente de baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes.

16-10-2021 Graficas Iparraguirre S.A. Adjudicación edición de carteles y revistas para la semana de minerales. 1.511,29€.

18-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

18-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

18-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

19-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

19-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de habitantes.

19-10-2021 Herce Elektrizitatea S.L. Adjudicación instalación eléctrica en el salón de minerales. 1.341,89€.

19-10-2021 Zientzia Bizirik S.L. Adjudicación realización de talleres científicos y espectáculo infantil en semana de mineralogía. 2.915,00€.

2021-10-20 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-21 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-22 Biztanleen udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-22 Biztanleen udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-22 B.E.F.O. Etxeko alokairua ordainzteko diru laguntza ematea.

2021-10-22 A.L.D. Ezintasuna duten pertsonentzako aparkamendu txartela ematea.

2021-10-25 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-25 Urola Garaia Turismoa. Udaleko portaloia erabiltzeko baimena.

2021-10-26 Biztanleen udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-26 Biztanleen udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-27 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

2021-10-27 Harremanak Elkartea. Eskoletan 2021-2022 ikasturtean Tratu Onak sustatzeko programa dinamizatzea esleitzea. 4.631,45€.

20-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de habitantes.

21-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de habitantes.

22-10-2021 Solicitud inscripción en el padrón Municipal de habitantes.

22-10-2021 Solicitud inscripción en el padrón Municipal de Habitantes.

22-10-2021 B.E.F.O. Concesión subvención para alquiler de vivienda.

22-10-2021 A.L.D. Concesión tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad.

25-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

25-10-2021 Urola Garaia Turismoa. Autorización uso portalón del Ayuntamiento.

26-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

26-10-2021 Solicitud inscripción en el padrón Municipal de habitantes.

27-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de habitantes.

27-10-2021 Harremanak Elkartea. Adjudicación dinamización en los colegios durante el curso escolar 2021-2022 el

Urretxuko udala

programa de Buenos tratos. 4.631,45€.

2021-10-27 Irudiberria Elkartea. Eskoletan, 2021-2022 ikasturtean, Drogomenpekotasun prebentzioa lantzeko tailerrak mdinamizatzea esleitzea. 4.183€.

27-10-2021 Irudiberria Elkartea. Adjudicación dinamización en los colegios durante el curso 2021-2022 talleres dirigidos a prevenir la drogadicción. 4.183€.

2021-10-27 Fundacion Matia. Pertsona Gizarte zerbitzuetan ardatz duen arreta ikastaroa ematea esleitzea. 18.150€.

27-10-2021 Fundacion Matia. Adjudicación impartición del curso de “Atención centrada en la persona en los Servicios Sociales”. 18.150€.

2021-10-28 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

28-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-28 K.B., M.A.A.J., H.A., M.A.A.B eta M.A.A.B. Biztanleen Udal Erroldan ofiziozko baja emateko espedientea bideratzea.

28-10-2021 K.B., M.A.A.J., H.A., M.A.A.B y M.A.A.B. Tramitación expediente de baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-29 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

29-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-29 Biztanleen Udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

29-10-2021 Solicitud inscripción en el Padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-29 Biztanleen udal Erroldan erroldatzeko eskaera.

29-10-2021 Solicitud inscripción en el padrón Municipal de Habitantes.

2021-10-29 F.M.R. Ezintasuna duten pertsonentzako aparkamendu txartela ematea.

29-10-2021 F.M.R. Concesión tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad.

**3.- Egonkortasuna, jasangarritasuna, eta gastuaren erregelaren betetzeari buruzko kontuhartzailetzaren txostena: 2021/17KALD zenbakia duen kreditu aldaketa espedientea: kreditu transferentziak.**

Alkate jaunak azaldu du kreditu aldaketa hau diru-partida batzuetatik beste batzuetara kantitateak transferitzean datza, hau da, partida batzuk jaisten dira beste batzuk handitzeko hauetan kontsignazio handiagoa behar dela ikusi delako. Guztira 90.000 € dira, ondorengo diru-partida hauen arabera:

**3.- Informe de Intervención sobre cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto: Expediente modificación créditos nº 2021/17 KALD transferencia de créditos.**

El sr. alcalde explica que esta modificación de créditos consiste en transferir cantidades de unas partidas a otras, es decir minorar algunas partidas para aumentar otras, en este caso porque se ha visto la necesidad de una mayor consignación. En total son 90.000 € que se corresponden con las partidas siguientes

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 1000.480.430.00.01 2021 | MERKATARITZAREN SUSTAPENA (COVID) | 90.000,00 | 20.000,00 | 70.000,00 |
| 1 4000.227.231.00.04 2021 | FAMILIAKO ESKU-HARTZEA | 20.000,00 | 9.000,00 | 11.000,00 |
| 1 4000.227.231.10.04 2021 | HITZ.: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA | 90.000,00 | 48.000,00 | 42.000,00 |
| 1 9000.721.161.00.01 2021 | UR PATZUERGOA FINANTZIAZIO KANONA | 167.000,00 | 13.000,00 | 154.000,00 |
| | | | | |
| | GUZTIRA | 367.000,00 | 90.000,00 | 277.000,00 |

Urretxuko udala

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

| Partida (*) | Izena | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 4000.421.231.20.01 2021 | EKARPENA. EGUNEKO ZENTRORA GARRAIOA | 100.000,00 | 10.000,00 | 110.000,00 |
| 1 9000.210.133.00.01 2021 | MANTENUA SEINALEAK ETA ERREPIDEAK | 10.000,00 | 8.000,00 | 18.000,00 |
| 1 6000.226.334.00.06 2021 | KULTUR EKINTZAK | 100.000,00 | 10.000,00 | 110.000,00 |
| 1 1000.239.912.00.01 2021 | BILERETARA BERTARATZEA | 10.000,00 | 5.000,00 | 15.000,00 |
| 1 9000.224.153.40.02 2021 | IBILGAILUEN ASEGURUAK. HIRIGINTZA | 2.500,00 | 2.200,00 | 4.700,00 |
| 1 7000.481.165.00.01 2021 | DIRU-LAG.:GABON APAING. BITARTEAN | 25.000,00 | 5.000,00 | 30.000,00 |
| 1 9000.683.153.40.04 2021 | ELURRA KENTZEKO PALA | 0,00 | 18.000,00 | 18.000,00 |
| 1 6000.481.334.00.02 2021 | PARROKIA ERABILTZEKO HITZARMENA | 0,00 | 800,00 | 800,00 |
| 1 9000.210.153.20.01 2021 | MANTENUA BIDE PUBL. ZOLAKETA-TRATAMEND. | 10.000,00 | 5.000,00 | 15.000,00 |
| 1 9000.210.153.30.01 2021 | MANTENUA-KONPONKETAK. HIRI-ALTZARIAK | 8.000,00 | 7.000,00 | 15.000,00 |
| 1 9000.210.153.40.01 2021 | MANTENUA BP ZERBITZUAK | 17.500,00 | 18.000,00 | 35.500,00 |
| 1 9000.221.153.40.11 2021 | TRESNAK, ERREMINTAK ETA BILTEGIRAKO MAT. | 7.000,00 | 1.000,00 | 8.000,00 |
| | | | | |
| | **GUZTIRA** | **290.000,00** | **90.000,00** | **380.000,00** |

Kontu hartzaile jaunak esan du kreditu aldaketa hau aurreko urriaren 26an emandako Alkatetzaren Ebazpenez onartu zela, eta hau horrela, organo honek duelako onesteko eskumena, ez baitu gainditzen talde

El sr. interventor expone que esta modificación de créditos fue aprobada por Resolución de Alcaldía de 26 de octubre pasado dado que este es el órgano competente para su aprobación al no superar el 25% de la variación acumulada

Urretxuko udala

funtzionaletako hasierako aurrekontuaren gainean metatutako aldakuntzaren % 25.

Aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren helburuak betetzeari buruz, kontu-hartzaile jaunak honako hau dio:

Aurrekontu-egonkortasuna:
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazio ez-finantzarioak 1.874.488,50 € dira; diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako defizita 1.842.488,50 eurokoa da; finantzatzeko gaitasuna/beharra 0,00 €.

2021eko ekitaldirako ez da egonkortasun-helbururik ezarri, baina bai erreferentziazko defizita, Urretxurako -714.919 eurokoa da.
Bi kopuruen arteko alderaketa eginda, ikusten da Udalaren finantzaketa-gaitasunak/beharrak ez duela erreferentziazko defizit hori gainditzen.

Finantza-iraunkortasuna.
2021eko abenduaren 31n Urretxuko Udalaren zor bizia % 0,00koa izatea aurreikusten da.
2021eko ekitaldirako zorpetze-helburua bertan behera geratu da.

Gastu-araua.
2021. urtean, gastu konputagarriaren aldaketa % 32,56koa izan da. 2021eko ekitaldirako, bertan behera geratu da gastu-araua.

Aurreko guztiagatik, jakitera eman da Urretxuko Udalak ez duela gainditu 2021eko ekitaldirako ezarritako erreferentziazko defizita, eta, beraz, ez dagoela behartuta 9/2020 Foru Dekretu

sobre el presupuesto inicial en los grupos funcionales.

En relación con el informe sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, sostenibilidad financiera y regla de gasto, el sr. interventor expone:

Estabilidad presupuestaria:
Las obligaciones no financieras financiadas con remanente de tesorería ascienden a 1.874.488,50 €, el déficit financiado con remanente de tesorería es de 1.842.488,50 €; la capacidad /necesidad de financiación es 0,00 €.

Para el ejercicio 2021 no se ha establecido un objetivo de estabilidad, aunque sí un déficit de referencia, para Urretxu es de – 714.919 €.
De la comparativa de ambas cantidades se observa que la capacidad/necesidad de financiación del Ayuntamiento no supera dicho déficit de referencia.

Sostenibilidad financiera.
A 31 de diciembre de 2021 se prevé que la deuda viva del Ayuntamiento de Urretxu sea 0,00%.
Para el ejercicio 2021 se ha suspendido el objetivo de endeudamiento.

Regla gasto.
En el año 2021 la evolución del gasto computable ha sido un 32,56%. Para el ejercicio 2021 se ha suspendido la regla de gasto.

Por tanto, no se ha superado el déficit de referencia establecido para el ejercicio 2021. Por tanto, no está obligado a aprobar el plan

Arauak arautukako plan ekonomiko-finantzarioa onartzera.

**4.- 2022 Aurrekontua:**
**a) 2022rako aurrekontu orokorra**

Agirre andreak azaldu du, urtero egiten den moduan, hurrengo ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren proposamena ekarri dela udalbatza honetara, eta berak azalduko dituela aurrekontu horren datu orokorrak. Diru-sarrerak eta gastuak orekatuta dituen aurrekontua dela dio, eta 12,5 milioi eurokoa dela osotara. Ez dauka zorrik, eta, beraz, ezta interesik eta amortizaziorik ere; eta 2021. urtekoarekin alderatuta, % 36 handiagoa da.

Jakinarazi du aurrekontu hau aurreko hamar hilabeteetako bilakaera eta beste ekitaldi batzuetako esperientzia kontuan hartuta kalkulatu dela. Diru-sarreren egoera joan den urrian onartutako ordenantza fiskalen arabera kalkulatu da, udalaren zergei, tasei eta prezio publikoei dagokienez.
Ondoren, diru-sarreren egoera azaltzen hasi da, kapituluz kapitulu, eta adierazi du 4. kapituluan, transferentzia arruntei dagokienean, diru-sarreren % 50 Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik datorrela, egindako kalkuluen arabera, 5.129.156 € inguru, 2021ean baino % 14 gehiago. Diru-sarreren aurrekontuaren % 20 inguru dira zergak, eta tasak, berriz, % 14 inguru. 7. kapituluan, kapital-dirulaguntzak diru-sarrera guztien % 14 dira, eta nabarmen handitu dira, Pasiotarren eraikina berritzeko emandako dirulaguntzagatik bereziki; desgaitasunen bat duten pertsonei zuzendutako zentro integral baterako (Aspace) eta tutoretzapeko udal-

económico financiero previsto en el artículo 1.4 del DFN 9/2020.

**4.- Presupuesto 2022:**
**a) Presupuesto General 2022**
La sra. Agirre expone que, como todos los años, se trae a este Pleno la propuesta de Presupuesto General para el próximo ejercicio siendo ella la que exponga sus datos generales. Dice que se trata de un presupuesto equilibrado en ingresos y gastos que asciende a 12,5 millones de euros. No contiene deuda por lo que no hay intereses ni amortización, y es un 36% más alto respecto al del año 2021.

Informa que el presente presupuesto se ha calculado teniendo en cuenta el devenir de estos diez meses anteriores y la experiencia de otros ejercicios. El estado de ingresos se ha calculado, en lo que a impuestos, tasas y precios públicos municipales se refiere, en función de las ordenanzas fiscales aprobadas el pasado mes de octubre.
Seguidamente pasa a exponer el estado de ingresos por capítulos, indicando que en el capítulo 4, transferencias corrientes, el 50% de los ingresos provienen del FFFM que se ha calculado en 5.129.156 €, un 14% más que en el ejercicio 2021. Los impuestos suponen el 20% del presupuesto de ingresos, y las tasas el 14%. El capítulo 7, subvenciones de capital, supone el 14% del total de los ingresos y se ha visto incrementado de forma importante debido a la subvención para la reforma del edificio Pasionistas para destinarlos a un centro intergral para personas con discapacidad (Aspace) y a apartamentos tutelados municipales. Sigue

apartamentuetarako, zehazki. Ondoren, gaineratu du, hirigintza-aprobetxamenduagatiko diru-sarrerei dagokienez, Gainzuri mojen komentuko azpieremuari dagokiona aurreikusten dela.

Agirre andreak azalpenarekin jarraitu du, eta gastuen atalean sartu da une honetan; jakinarazi du, batzordeei dagokienez, aurrekontuaren % 51 Lurralde Antolamendurakoari dagokiola, ia udal-zerbitzu guztiak biltzen baititu bere baitan, inbertsioez gain; % 34 Herritarren arloari dagokio, eta gizarte-ekintza eta sustapen soziokulturala hartzen ditu barnean honek; % 15, berriz, Antolamenduari dagokio.
Bestalde, azaldu du 2022rako nabarmen handitu dela 6. kapitulua, inbertsioena, eta 3,5 milioi euroko gastua hartzen duela barnean, gastuen aurrekontuaren zenbateko osoaren % 28; aldiz, 2021eko ekitaldian, % 9 zegokion.

Lehen kapituluari, langileenari, dagokionez, soldatak % 2 igotzea aurreikusi dela dio, eta kapitulu hori % 8 handitu dela, aurreikusten denaren arabera hurrengo urtean erretiro aurreratuan sartuko diren langileei egokituko zaizkien primak kontuan hartu direlako.

Ondoren, Zubillaga jaunak aurrekontuak osatzeko prozesua azaldu du, eta zehaztu du, aurreko urteetan bezala, auzoetan bilerak eginez hasi direla; aurten, sei bilera egin dira, 42 lagunekin, eta 45 proposamen jaso dira. Jakinarazi du parte-hartze prozesua proiektu zehatz bati lotutako parte-hartze prozesu batekin osatuko dela.

diciendo que, por lo que respecta a los ingresos por aprovechamiento urbaístico se prevé el correspondiente al subámbito Gainzuri-convento.

La sra. Agirre sigue con su exposición, entrando ahora en el capítulo de gastos, e indicando que por comisiones, el 51% del presupuesto se destina a Territorio que engloba prácticamente todos los servicios municipales además de las inversiones; el 34% a Ciudadanía que engloba acción social y promoción sociocultural; y el 15% a Organización.

Por otra parte, informa que para el ejercicio 2022 se incrementa de forma importante el capítulo6, inversiones que contempla un gasto de 3,5 millones de euros, un 28% del total del presupuesto de gastos frente al 9% recogido en el ejercicio 2021.

Por lo que respecta al capítulo 1, personal, señala que se ha previsto un incremento en los salarios del 2%, y que este capítulo ha aumentado un 8% debido a que se han tenido en cuenta las primas por jubilación anticipada de los y las trabajadoras que, previsiblemente, pasen a esta situación el próximo año.

Seguidamente el sr. Zubillaga pasa a exponer el proceso presupuestario, y señala que, como en años anteriores, se inicia con reuniones vecinales que este año han sido seis reuniones con 42 personas en las que se han recibido 45 propuestas. Informa que el proceso participativo también se completará con el correspondiente proceso participativo en relación al algún proyecto concreto.

Urretxuko udala

Inbertsioei dagokienez, esan du kapitulu garrantzitsua dela zinez. Gogorarazi duenez, 2021eko ekitaldiko inbertsio garrantzitsuenak hauek izan dira: obretako brigadarako kamioia erostea eta Jose Mari Lasa plazaren urbanizazioa. Ondoren, 2022rako aurreikusita dauden inbertsioak azaldu ditu:

- 1.100.000 € Pasiotarren eraikina berritzeko, Aspacerako zentro integral bat ezartzeko bertan. Ekitaldiko inbertsiorik garrantzitsuena horixe da.
- 550.000 € Nekolaldeko aparkalekua urbanizatzeko eta Nekolaldeko 9-10 tartea asfaltatzeko.
- 305.000 € Gainzuri ikastetxeko leihoak aldatzeko. Lana udan gauzatzea aurreikusten da, ikastetxearen funtzionamenduari eragozpenik ez sortzeko.
- 125.000 € Pagoetako eliza zaharreko inbertsioetarako; belaunaldien arteko zentro komunitario bat eratu nahi da gune horretan.
- 75.000 € Santa Barbara ingururako. 2021eko urte honetan, bide berria egin da, eta oinezkoentzako gunea zabaldu da. Datorren ekitaldian, haur-parkeari ekingo zaio, eta gogoeta egin nahi da toki horren inguruan.
- 40.000 € kultura-eraikinetan inbertitzeko; kultura-etxeko leihoak aldatzea aurreikusten da.
- 55.000 € kiroldegia girotzeko.
- 20.000 € igerilekuko eraikina hobetzeko.
- 80.000 € espaloiak zolatzeko.
- 20.000 € hiri-altzarietarako.

En cuanto a las inversiones, dice que, efectivamente, es un capítulo importante. Recuerda que en el ejercicio 2021 las inversiones más importantes han sido la adquisición del camión para la brigada de obras y la urbanización de la plaza Jose Mari Lasa. Seguidamente pasa a dar cuenta de las inversiones previstas para el año 2022:

- 1.100.000 €: reforma del edificio Pasionistas para albergar en el mismo un centro integral para Aspace. Es la inversión más importante del ejercicio.
- 550.000 €, urbanización del aparcamiento Nekolalde y asfaltado de Nekolalde 9-10.
- 305.000 €: sustitución de ventanas en colegio Gainzuri. Se prevé ejecutar el trabajo en verano para no entorpecer el funcionamiento del centro.
- 125.000 € para inversiones en la antigua iglesia Pagoeta en la que se pretende crear un centro comunitario intergeneracional.
- 75.000 € para la zona de Santa Barbara. Este año 2021 se ha ejecutado un nuevo vial ampliándose la zona peatonal. El próximo ejercicio se acometerá el parque infantil y se pretende hacer una reflexión sobre el entorno.
- 40.000 € para inversiones en edificios culturales, donde se prevé la sustitución de las ventanas de la casa de cultura.
- 55.000 € para la climatización del polideportivo.
- 20.000 € para mejoras en el edificio de la piscina.
- 80.000 € para la pavimentación de aceras.
- 20.000 € para mobiliario urbano.

- 46.000 € ur- eta saneamendu-azpiegituretarako.
- 44.000 € auzoetan inbertitzeko. Aparizio auzo barruko plaza berritzea planteatu da.
- 30.000 € haur-parkeetan inbertitzeko. Kasu honetan, Basagastin kokatutako parkea berritzeari heldu nahi zaio, horixe baita zaharrena gaur egun.
- 80.000 € bide publikoak asfaltatzeko, aurreikusten denaren arabera Mundo Mejor inguruan, Santa Barbarako aparkalekuan eta San Martinen.
- 40.000 € argiteria publikoan inbertitzeko eta haren jasangarritasun energetikoarekin jarraitzeko. Udalerrian 1.400 kale-argi daudela azaldu du, eta 300 bat kale-argi geratzen direla aldatzeko.
- 10.000 € bidegorria asfaltatzeko, Lizeoko zatia kasu honetan.
- 15.000 €, bidegorriko hiri-altzarietarako.
- 15.000 € hilerriko kolunbario berrietarako.
- 50.000 € Santa Barbara etxe-taldearen berritze-lanetarako eta irisgarritasunerako.
- 25.000 € alde zaharra biziberritzeko askotariko jardueretarako.

Zubillaga jaunak esan du horiek direla aurrekontu-proiektu honek jasotzen dituen inbertsioak; baina, era berean, horrez gain, izaera irekia duten 1.000 €-ko zuzkidurako partida batzuk ere jasotzen dira, hala nola BM-ko aparkalekua; horretarako, proiektu tekniko bat lantzen ari dira, eta, jakitera ematen denean, horrek ere bere isla izango du udal-

- 46.000 € para infraestructuras de agua y saneamiento.
- 44.000 € para inversiones en barrios. Se plantea la renovación de la plaza interior de Aparicio auzoa.
- 30.000 € para inversiones en parques infantiles. En este caso se pretende acometer la renovación del parque sito en Basagasti, ahora el más viejo.
- 80.000 € para asfaltado de vías públicas, previéndose Mundo Mejor, aparcamiento Santa Bárbara, y San Martín.

- 40.000 € para inversiones en el alumbrado público y seguir con la sostenibilidad energética del mismo. Informa que en el municipio hay 1.400 farolas quedando alrededor de 300 farolas por cambiar.
- 10.000 € para el asfaltado del bidegorri, en esta ocasión el tramo del Lizeo.
- 15.000 € , mobiliario urbano para el bidegorri.
- 15.000 € para nuevos columbarios en el cementerio.
- 50.000 € para la rehabilitación y accesibilidad del grupo Santa Bárbara.

- 25.000 € para diversas actuaciones de regeneración del casco viejo.

El sr. Zubillaga dice que estas son las inversiones que este proyecto de presupuesto recoge, pero que también se reflejan en el mismo una serie de partidas con una dotación de 1.000 € y con carácter abierto, como el aparcamiento BM para el cual swe está redactando el proyecto técnico y que una vez que se conozca el mismo tendrá su felejo en el presupuesto municipal vía

Urretxuko udala

aurrekontuan, gerakinaren kargura egindako kredituen aldaketa baten bidez. Izaera ireki horrekin jaso dira honako hauek ere: 1) geltokietako bideetako zabalgunea berroneratzea, eta disuasioko aparkaleku bat egiteko aukera; 2) Iparragirre, Areizaga eta Labeaga arteko bidegurutzearen urbanizazioa; 3) Matxinportako sarbidea (proiektu teknikoa idazten ari dira); eta 4) Aldiri-bi proiektua.

modificación de créditos con cargo al remanente. Con el mismo carácter abierto se recogen: 1) la regeneración de la playa de vías de las estaciones y un posible parking disuasorio; 2) la urbanización del cruce Iparragirre, Areizaga, Labeaga; 3) el acceso por Matxinporta (se está redactando el proyecto técnico); y 4) el proyecto Aldiri-bi.

Hurrena, Fidalgo andreak Herritarren batzordeari dagokion aurrekontua azaldu du, eta bi eremu hauek dituela azaldu du: 1) sustapen soziokulturala, eta honen barruan sartzen dira, kultura, euskara, jaiak, kirolak, hezkuntza eta gaztedia; eta 2) gizarte-ekintza.

Seguidamente la sra. Fidalgo, procede a explicar el presupuesto de la comisión de Ciudadanía indicando que tienes dos áreas:, 1) promoción sociocultural donde se engloban cultura, euskara, festejos, deportes, educación y juventud; y, 2) acción social.

Sustapen soziokulturalari dagokionez, esan du aurrekontu honek babes handiagoa eman nahi diola kulturaren sektoreari, COVID-19ak eragindako egoerak kaltetutako sektorea baita, eta horrela, Covid aurreko egoeran bezalaxe jaso direla bai dirulaguntzak eta bai ekintzak. Partida berriak ere badirela dio, dinamizatzearekin lotuta: 15.000 € pilotalekuko dinamizaziorako, pilotaren ikuspegitik, eta gaia pilota-eskolarekin landu ondoren; 5.000 € Santa Barbara dinamizatzeko. Azken horri dagokionez, orain arte egin dena ustiapenari egonkortasuna ematea izan dela dio, eta beti esan izan dute helburu hori lortu ondoren ingurunea dinamizatzeari heldu behar zaiola, udalaren ikuspegitik.

En relación a promoción sociocultural dice que este presupuesto pretende dar apoyo al sector de la cultura afectado por la situación originada por el Covid-19, y así se han recogido las subvenciones y las acciones de la misma forma que en la situación pre-Covid. Sigue diciendo que también se recogen partidas nuevas que están unidas con la dinamización: 15.000 € para la dinamización en el frontón desde el punto de vista de la pelota y habiendo tratado el asunto con la escuela de pelota; 5.000 € para dinamización de Santa Bárbara. En relación a esta última, señala que lo que se ha hecho hasta ahora es dar estabilidad a la explotación, y siempre han dicho que una vez logrado este objetivo se tendría que afrontar la dinamización del entorno desde el punto de vista municipal.

Instalazioen hobekuntzetan, Zubillaga jaunak aipatutako kultura-etxeko leihoak aldatzeaz gain, leihatilak ezarriko dira Labega aretoan. Eta, inbertsio-izaeraz, kultura-ondarearekin

En mejoras de las instalaciones, además del cambio de ventanas de la casa de cultura que ya ha referido el sr. Zubillaga, se van a instalar taquillas en Labega aretoa. Y con el carácter de

lotutako bi jarduketa ere jasotzen dira: tximinia berreskuratzea (40.000 €), eta Jose Mari Lasa plazan eskultura bat jartzea (12.000 €).

